



# Haur Hezkuntza

## 2. Modulua: ESKOLA ETA CURRICULUMA DIZIPLINARTEKO LANA (DAL) EGITEKO GIDA

2020-2021

# AURKIBIDEA

1.- DALaren aurkezpena.....	3
2. Arautegia.....	4
3.- Gaitasunak eta Ikastearen emaitzak.....	6
4.- Lanaren garapena.....	8
5.- Ebaluazioa.....	13
6.- Egoera/ Agertokia.....	14
7.- Oinarrizko bibliografia.....	15
8.- Eranskinak.....	16

# 1.- DALaren aurkezpena.

2. Modulua, "Eskola eta curriculum", Haur Hezkuntzako Graduoko 1. mailan gauzatzen da, bigarren lauhilekoan.

Haur Hezkuntzako titulazioko 2. modulu honetan, irakasleek haur osasunaren gaia lantzea erabaki dute, hain zuzen ere, elikadura.

Haur Hezkuntzan elikadura egokia izateak umeen garapena, ikastea eta gaurko eta etorkizuneko ongizatea baldintzatzen ditu.

Elikadura gaira hurbiltzean, hasiko gara ikasten nutrizioaz, alergiez, intolerantziez, erlazionaturiko gaixotasunez, auto-ezagutzaz eta auto-kontrolaz, norberaren eta inguruko bestelako kulturen jakiak prestatzeko eta erabiltzeko ohiturez ... Halaber, hasiko gara ere eskolako bizitzan gai hau nola zehaztu behar den aztertzen eta erabakitzen.

1. Moduluan bezala, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntzaren (AOI) metodologia erabiliko da Moduluko Diziplinariako Lana egiteko. Beraz, lau urteko haurren talde baten hamaiketako gai duen egoerari buruz AOI bat burutu beharko da. Baina, oraingo honetan, AOI-ri azken proposamen didaktiko bat gehituko zaio (ikus "Egoera/Agertokia" atala, gida honetako 14. orrialdean).

Moduluko Diziplinariako Lanak 5 kredituko balioa du. Kreditu horiek honako irakasgai hauei dagozkie:

- *Didaktika Orokorra*
- *Hezkuntza Psikologia*
- *Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I*
- *Musika Adierazpenaren Garapena I*
- *Garapen Psikomotorra I*

**DAL-a antolatzerakoan** ondorengo arauak jarraituko zaie:

- 1) Lana egiteko ikasle taldeak lauhilekoaren hasieran argitaratuko dira, baina 1. moduluan sortutakoak mantenduko dira, eta talde bakoitzari tutore bana esleituko zaio. Tutoreak aipatu irakasgairen bateko irakasleak izango dira.

- 2) Lanaren lehenengo fasea eskolak hasi eta 5. astean egingo da
- 3) Lana egiteko, ikasleek 125 ordu behar izango dituzte (5 kreditu), 12 astetan banatuta. Horietatik 2 aste osotan (40 ordu) eta beste aste-erditan (ikasturteko azkena, 10 ordu) ikasleek bertaratu egin behar dute eta eskolak izango dituzte irakasgai guztietan, nola magistralak eta praktikoak. DAL-aren gainerako orduetan ez dute bertaratu behar. Ikasleak astean batez beste 10 ordu eskaini behar dizkiolarari.
- 4) Gutxienez bina tutoretza saio egingo dira talde bakoitzarekin.

## 2. Arautegia

### **DAL-a egiteaz salbustea**

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.
  2. Graduako ikasleek DAL-a egin beharko dute, baldin eta modulu bateko hiru irakasgaitan matrikulatuta badaude, gutxienez. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute DAL-a egin beharrik izango.
  3. DAL-a egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10en gainean izango da, DAL-aren portzentajea aplikatu gabe.
  4. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke dituzten moduluko DAL-a egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DAL-a.
- Aurreko kasuetako edozeinetan gomendatzen da moduluaren edo titulazioaren koordinatzailearekin hitz egitea, egoeraren berri emateko.

Titulazioa modularra denez, eta lanak diziplina arteko edukia duenez, ikasleak jarraikako ebaluazio sisteman parte hartu ezin badu justifikatutako arrazoiengatik (lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, %33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKE-ren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak), DAL horrekin erlazionatutako proposamena egin beharko du, eta ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan.

Egoera horretan dauden ikasleak, edo ez presentzial eredura pasatzea erabakitzen

gutunak, moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) jarri beharko dira harremanetan otsailak 27a baino lehen, eta honek behar dituzten informazioak emango dizkie, hala nola, lana entregatzeko eta defendatzeko data zein tokia (defentsan epaimahai moduan koordinatzailea eta beste moduluko irakaslea egongo dira). Lan horretarako ez da egongo tutorerik eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko.

Proba horren balioa modulu honetan DAL-ari dagokion berdina izango da, hau da, %16a irakasgai bakoitzaren kalifikazioan. DAL horren kalifikazioa ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da (ekaina-uztaila).

Ikasle bat Ez ohiko deialdira DAL lanarekin badoa, koordinatzaileak defendatzeko data, lekua eta orduaz informatuko du ikasleari (defentsan epaimahai moduan koordinatzailea eta beste moduluko irakaslea egongo dira).

### 3.- Gaitasunak eta Ikastearen emaitzak

#### Modulu guztietako DALetan erabiltzekoak

Gaitasunak	Ematekoak	Ikastearen emaitzak
<p>Informazio eta komunikazio baliabideak (IKT-ak, bibliotekak, fonotekak,...) kritikoki erabiltzea ezagutza iturrietara heltzeko eta komunikazio, ikaste, ikertze eta lan kooperatibo atazak errazteko.</p>	Txosten idatzia	Informazio iturri oparoak erabiltzea Norberaren eraikuntza, ez plagioa Txosten idatzian erabiltako informazio eta komunikazio iturriak zuzen sartzea (APA arauak)
	Ahozko Aurkezpena	Informazio iturri oparoak erabiltzea
<p>Ahoz eta idatziz zuzen egitea, adierazpide oparoak erabiliz</p>	Txosten idatzia	Zuzentasun linguistikoa (gramatikala eta ortografikoa). Gaiari eta adierazpen mailari dagozkien termino egokiak erabiltzea. Ideien aurkezpenean ordena, koherentzia eta logika izatea. Adierazten diren zati guztiak txosten idatzian sartzea.
	Ahozko aurkezpena	Zuzentasun linguistikoa (gramatikala eta fonetikoa). Gaiari eta adierazpen mailari dagozkien termino egokiak erabiltzea. Ideien aurkezpenean ordena, koherentzia eta logika izatea. Jariotasuna eta argitasuna azaltzean.
<p>Estrategia didaktikoak diseinatzea gaitasun komunikatiboak aberasteko (ahozkoak, idatziak, ikusizkoak, gorputzezkoak, afektiboak eta musikalak) garapen integralerako</p>	Txosten idatzia	Azken aurkezpenaren eta txosten idatziaren arteko koherentzia. Lengoaia adierazgarriak erabiltzea (musika, plastika eta gorpuzkerak).
	Ahozko aurkezpena	Komunikazio trebetasunak erakustea. Berba txandak errespetatzea.
<p>Taldean lan egitea parte hartzea, ardura, autoestimua, sormena, adiskidantza, askatasuna, erlaxazioa, dibertsioa, bizipoza eta kontzentrazioa sustatuz unean uneko jardunetan.</p>	Taldearen auto-ebaluazioa	Hasieratik lan talde moduan antolatu: lan taldearen helburuak adostea, funtzioak, denbora, guneak, gatazkei aurre egiteko erak, etab. Adostutako lan plan bat egitea eta berorri jarraitu, plana aldatu beharrezkoa izanez gero. Modulu gidari jarraitu. Epeak bete.

## Moduluko DAren espezifikoak

Ebaluatu beharreko gaitasunak	Gaitasuna hartu izanaren adierazleak	Ebaluazio jarduerak
G1: Ikasleak osasunari loturiko alderdiak lantzerantz behartzen dituzten hezkuntza egoerak aztertzea, baita hainbat esparrutan dituzten ondorioak ere, bereziki familiekiko lanean.	Haur hezkuntzako osasunari eta elikadurari lotuta azter daitezkeen oinarrizko kontzeptuak hautatzea	Tutoretza saioa
	Proposatutako eszenategia abiapuntutzat hartuta iker daitezkeen galderak eta hipotesiak proposatzea	Tutoretza saioa Idatzizko lana
G2: Oinarrizko estrategiak erabiltzea (adibidez, gizartea ikuspegi kritiko batetik aztertzea edo esperientziak eta iritziak trukatzeko), norberaren balioak argitzeko eta bizimodu bidezkoagoak eraikitzen lagunduko duten jarrera pertsonalak hartzeko bitarteko gisa.	Gizartea eta honek osasunari eta elikadurari loturiko gaietan duen jarrera modu kritikoan aztertzea	Tutoretza saioa Idatzizko lana
	Modu aktiboan parte hartzea eta esperientziak eta iritziak trukatzeko	Tutoretza saioa
	Ondorio kritikoak argitzea eta azken txostenean sartzea	Idatzizko lana
G3: Taldean lan egitea eta partaidetza, erantzukizuna, autoestimua, sormena, adiskidetasuna, askatasuna, lasaitasuna, dibertsioa, bizipoza eta uneko jardueretako kontzentrazioa bultzatzea.	Irakasleek ezarritako emate epeekin bat datorren lanerako plan adostu bat prestatzea	Tutoretza saioa Taldearen bileren aktak
	Taldearen eginkizunen banaketa	
	Ikaskideei zer material bildu diren eta lanari zer ekarpen egiten dioten azaltzea	
	Taldearen indar guneak eta ahulguneak identifikatzea eta hobetu beharreko alderdiak proposatzea	
G4: Mintzaira artistikoak – gorputz eta ikus adierazpena eta musika-gizarte gaitasunen garapen praktikora zuzendutako estrategia didaktiko ludiko eta sormenezkoen diseinuan integratzea.	Amaierako aurkezpenaren eta idatzizko txostenaren arteko koherentzia	Amaierako Aurkezpena Idatzizko txostena
	Moduluko arlo ezberdinak integratuko dituen proposamen didaktiko bat egitea	
	Aurkezpenaren batasuna eta koherentzia	
	Adierazpen mintzairak (musika, plastika eta/edo gorputz heziketa) erabiltzea	
	Taldekide guztien partaidetza	
	Sormena eta originaltasuna	
G5: Askotariko informazio eta komunikazio bitartekoak (IKTak, liburutegiak, fonotekak, eta abar) modu kritikoan erabiltzea, ezagutza iturriak kontsultatzeko eta	Askotariko informazio iturriak erabiltzea	Tutoretza saioak Idatzizko txostena
	Informazio iturri nagusiak bereiztea: liburuak, artikulak eta Interneteko beste dokumentu motak.	
	Informazio iturri ezberdinen bidez bildutako datuak modu kritikoan aztertzea	

komunikatzea, ikastea, ikertzea eta elkarlanean aritzea ahalbidetzeko.	Idatzizko txostenean, erabili diren askotariko informazio eta komunikazio bitartekoak era egokian integratzea	
G6: Egoki hitz egitea eta idaztea eta adierazpen teknikak erabiltzen jakitea.	Idatzizko txostenean gidako atal guztiak behar bezala sartzea	Amaierako Aurkezpena  Idatzizko txostena
	Arlo ezberdinetako terminologia espezifikoa erabiltzea; ortografia eta gramatika zuzenak izatea	
	Ideiak modu ordenatu, koherente eta logikoan aurkeztea	
	Taldea talde lanaren dinamikara egokitzea; hori agiria modu koherentean antolatuta adieraziko da	
	Aurkezturiko ideiak arrazoitzea	
	Moduluko arlo guztiak integratzea	
	Zentzu kritikoa eta sormena	
	Proposamena ikasleek elikadura osasungarriari dagokionez dituzten balioak eta jarrerak sustatzeko egokitzea	

## 4.- Lanaren garapena

### DAL-a garatzeko faseak

#### A) Arazoa edo problema analizatzea eta ebaztea

A1) Eszenategia edo egoera irakurri (banaka eta taldean), zalantzak azaltzea (terminologia, kontzeptuak, zirkunstantziak) eta egoera konpontzeko bide desberdinak planteatzea (non egin kontsultak, nola...). Problemaren ertz guztiak denen aurrean azaltzea. Arazoa definitzea.

A2) Zer dakigu problema honetaz edo gai honetaz? Ezagutzen dugu antzeko problemarik? Inoiz entzun dugu ezer horretaz? Bizi izan dugu antzeko egoerarik? Problemari ebazpide desberdinak eman (hipotesiak).

Puntu honetan, lehenik, taldea osatzen dutenen banakako ekarpenak idatziko dira -alde batetik, arazo horretaz dakitena, eta bestetik, konponbiderako egon daitezkeen aukerak-. Gero, taldean erantzungo dira galderak eta hipotesiak idatziko dira.



A3) Zerbait gehiago jakin behar dugu? Non bilatu? Zer ekarpen egiten digu moduluko irakasgai bakoitzak problema ebazteko? Zereginak banatu, informazio berria bilatzeko aukerak eman eta Lanerako Plan bat egin.

A4) Informazioa bilatu, hautatu eta aztertu.

A5) Emaitzak taldera eraman. Informazio berria aztertu eta problema berriz definitu.

- Problemaren kausak, jatorria eta ondorioak bilatu beharko lirateke, ahal den ikuspuntu gehienetatik eta bere osotasunean aztertu (moduluko irakasgaiekin lotuta dagoen heinean), eta funtsezko kontuak hauteman, konponbiderako esku-hartze ildoak eskainiz.
- Ikertutakoaren zergatia baloratu, "ezagutu berri" dena zalantzan jarri, hartara, balioak bereganatzea sustatuz, edo errealitatearen aurrean jarrera kritikoa izan behintzat.

A6) AOI-ren ondorioak atera.

## **B) Jardun bat diseinatzerakoan ezagutza berriak aplikatzea**

B1) Ikasgelarako esku-hartze proposamen bat diseinatu; Haur Hezkuntzako maila/ziklo zehatz bateko ikasleentzako irakatsi eta ikasteko proposamen bat izango da.

Ikasgelarako proposamen hau definitutako arazoa konpontzeko ebazpenaren zatia izango da eta aldi berean, AOI-tik ateratako ondorioetan oinarrituko da. Horrez gain, proposamen honek musikaren, plastikaren eta gorputz adierazpenaren arloak integratuko ditu, eta ikasleen motibazioan/sentsibilizazioan jarriko du arreta berezia, baina alderdi ludikoak ahaztu gabe.

B2) 2. modulo astean ikasgaietatik hartutako ideiak A atalean bideratutako ideiekin uztartuko dira eta tutoreekin komentatuko dira.

## **C) Emaitzen komunikazioa**

C1) Aurkezpenaren diseinua. Kontutan hartuko dira moduluak bere baitan hartzen dituen ikasgaiak eta aurkezpenean nolabait txertatuta egotea baloratuko da.

Eskuhartze proposamena gelako gainerako talde guztien aurrean eta moduluko irakasleen aurrean aurkeztuko da, DALaren azken astean.

## **D) Ikasitakoaz eta jarraitutako prozesuaz ebaluaketa, ondorioen zehaztapena eta tutoreari entregatu beharreko lanaren azken bertsioa prestatzea.**

### **Kronograma**

DAL asteak		Saio magistralen edukiak/Tutoretzak	Saio honetatik hurrengorarte taldeak egingo duen lana
5. ASTEA (1. DAL astea, presentziala) 02-22/ 02-26	A1 A2 A3	Magistralak: DAL-aren lanketarako oinarritzko informazio teorikoa landuko da ikasgai bakoitzaren ekarpenetatik. Ikasle guztiek parte hartu beharko dute beraien DAL lana bideratu ahal izateko. Gainera, lehenengo magistralean lana egiteko gida irakurri eta aztertuko da (2:30 h)	
		Egoera aztertzea eta lanerako plana egitea.	Banakako hausnarketa idatzia Banakako hausnarketak taldean partekatu Lan taldean hausnartzea eta Lan Plana egitea eta idaztea Arlo edo irakasgaien ekarpenei buruzko hausnarketa
6,7,8 Asteak (ez presentzialak)	A4 A5 A6	Informazioa aztertzea eta konponbideak proposatzea.	Bildutako materiala aztertzea eta antolatzea. Ondorioak ateratzea. Aurkibidea egitea eta arazoa ebazteko irtenbidea barne hartuko duen txosten idatzia erredaktatzea  <b>Tutoretza saioa</b>
9. Astea (2. DAL astea, presentziala) 03-22/ 03-26	B1	Magistralak: Maila teoriko-praktikoan ikasgelan DAL eskuhartzea proposatzeko gakoak landuko dira. Ikasle guztiek parte hartu beharko dute beraien proposamena garatezko lanabesak izateko.	Jasotako ideiak lan taldean partekatu. Onartutako ideiak aplikatzea Haur Hezkuntzako gelarako proposamen didaktikoa egitean

10, 11,12 Asteak (ez presentzialak)	B2 C1	Haur hezkuntzako ikasleentzako proposamen didaktikoa.  Amaierako aurkezpena prestatzea eta txostena egitea.	Burututako lanari buruzko hausnarketa eta aurkezpena. martxan jartzea.  <b>Tutoretza saioa</b>
13,14 Asteak (ez presentzialak)	C1	Amaierako aurkezpena prestatzea eta txostena egitea.	
15. Astea (3.DAL astea, presentziala) 05-10/ 05-14		<b>Azken aurkezpena eta ebaluazioa.</b> Saio honetan ikasleek beraien ikaskideen eta beste irakasleen aurrean DAL-a aurkeztuko dute. Antzeko hainbat saio izango dira.	Aurkezpenak irakasle desberdinekin
16. ASTEA		Taldeek beraien tutoreei lana emango diete. Aste bete beranduago, tutoreek kalifikazioak emango dituzte (maiatzak 29 Gutxi gora behera)	Emateko lana osatzea. Lanean, ebaluazioetan, aurkezpena ere sartuz

*Tutore eta ikasleen artean gutxienez bi tutoretza egin behar dira. Gainontzekoak, ikasle tutore artean zehaztu daitezke.*

Taldeak tutoreari entregatuko dion **lanak ondorengo hauek barne hartuko ditu:**

- Arazoa konpontzeko jarraitutako prozesuari buruzko txostena. Bertan, urratsetako bakoitzean zer informazio lortu den eta taldeak zer ekarpen adostu dituen zehaztuko dira. (A atala)
- Haur hezkuntzako talde batentzako irakatsi eta ikasteko proposamena, lanaren ABPren ondorioak aplikatuko dituen eta musikaren, plastikaren eta gorputz adierazpenaren arloak integratuko dituen. (B atala)
- Taldearen bileren aktak.
- Taldeko eta banakako hausnarketa/autoebaluazioa.
- Eranskinak eta arazoa konpontzeko erabilitako dokumentazio osagarria.

Lanak unibertsitateko lan orok bete beharreko ezaugarriak izango ditu formatuari, beste batzuen ekarpenei, bibliografia aipamenei (APA Style), zehaztasunari, argitasunari, eta abarri dagokienez. **Orri kopurua:15-20.**

## **Hizkuntza gaitasuna**

Hizkuntzaren erabilera zuzena ezinbestekoa da. Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta akatsak oso nabariak direnean, edo testua ulergaitza denean –beste hizkuntzetatik itzultzeagatik edo hizkuntzaren adierazpide okerra erabiltzeagatik-, lana ez da zuzenduko, ikasleak edo taldeak lana zuzen egin arte.

Aspektu hauek hartuko dira kontuan:

- Koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna
- Diskurtsoaren ulergarritasuna
- Hiztegia eta Ortografia
- Ergatiboa eta komunztadura

**Generoa:** Adierazpenean generoa zaintzen duen forma zaintza komenigarria da.

**Plagioa:** Ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egin balitz bezala. Ikasleak zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada, txosten osoa baztertuko da eta DAL-a ez da gaindituko.

### **E) Auzkezpenaren ezaugarriak**

**Egitura:** Aurkezpenean tutorea eta beste irakaslea bat egongo da gutxienez.

Eraitza tutoreak jarriko du eta gainontzeko irakasleek lanari beste ikuspuntu bat eman eta aberasten saiatuko dira, beharko balitz txostenean aldaketak egiteko.

**Iraupena:** Aurkezpenak 15 minutuko iraupena izango du. Ondoren galderetarako tarte bat egongo da.

**Parte hartzea:** Garrantzitsua da partaide guztiak zeresana izatea aurkezpenean.

**Aurkezpenaren izaera:** Komunikazio bide eta egitura desberdinetan pentsatu. Ikasgaietan lauhilebetekoan zehar barneratutako estrategiak azalaraztea interesgarria izan daiteke.

## 5.- Ebaluazioa

Moduluko lana (diziplinarteko lana) amaitutakoan, talde bakoitzak dossier/txosten bat entregatuko dio bere tutoreari, gida honetako 8. orrialdean zehaztu bezala.

Ikasle guztiek egin behar dute moduluko lana, beraz DAL-a egitea beharrezkoa da (ikus DALa egiteaz salbuesteak, 4.orrialdean), eta honen nota irakasgai guztiei dagokien amaierako notaren % 16 izango da.

Nota horren % 65 taldeari nota jarri behar dion tutorearen esku egongo da, beste % 25a taldeko auto-ebaluazioaren esku eta azken %10a banakako auto-ebaluazioarena izango da. Begiratu Eranskinetan atxikita dauden auto-ebaluazio eta ko-ebaluaziorako galdesortak.

Idatzizko txostena (%60), gainerako ikaskideei egindako aurkezpena eta tutoretza saioetako partaidetza (%40) hartuko dira kontuan.

Irakasleek modulu astean egindako lanak eta parte-hartzea baloratu dezakete.

Ikasle presentziala izateko dagokion datetan eta prozeduran uko egiten bazaio, ikasleak bere kabuz egingo du lana, tutorizazio gabe eta txostena ohiko epeetan aurkeztu beharko du.

Tutoreak adierazten dion egun, leku eta orduan lanaren defentsa egin beharko du. Kasu honetan ohiko eta ez ohiko deialdiak bermatuko dira.

Ikasleak dagokion epeetan uko egingo ez balu, ohiko deialdira aurkezteko aukera galduko luke, eta soilik ez ohiko deialdira aurkeztuko litzateke.

Irakasgairen bat gainditzen ez bada, baina moduluko lana bai, horri dagokion nota gorde egingo da eta ohiko eta ezohiko deialdira arte. DAL-a ez gainditzearen ondorioak irakasgai bakoitzaren gidan kontsultatuko dira.

## 6.- Egoera/ Agertokia

### ***Elikadura eta osasuna: elikagaiak ikasgelan***

*Miren 4 urteko ikasle talde bateko irakaslea da Haur Hezkuntzako eskola publiko batean. Azken bi ikasturteetan badago gai bat buruan bueltaka dabilkiona, hamaiketakoarena. Mirenek pentsatu du ondo legokeela bere ikasleek hamaiketako etxetik ekartzea.*

*Urte hauetan gurasoen iritzi desberdinak entzuteko aukera izan du. Zenbait gurasoren ustez, hobe da hurrek gustukoak dituzten elikagaiak ekartzea, jango dituztela bermatzeko. Beste batzuen iritziak, aukera bikaina da beste gauza batzuk jatera ohitzeko. Beste zenbaiten aburuz, adin horretarako osasungarriena dena ekarri behar lukete eskolara. Beste batzuen ustez, besteak ere kontuan izan behar dira eta, nonahi iragarritakoak izan arren, garestiegiak ez diren gauzak ekarri behar lituzkete. Badira beste zenbait neska edo mutila izan elikagai ezberdinak ekarri behar dituztela pentsatzen dutenak ere.*

*Mirenek hau guztia komentatu die bere lankideei ziklo bileran; denok ados daude interesgarria izango litzatekeela egoera hau ikasgelan lantzearekin, diziplinarteko gai gisa eta hainbat arlo integratuz, beti ere eskolako lankideekin adostuta baita familiekin ere.*

## 7.- Oinarrizko bibliografia

- Akoschky, J.; Alsina, P.; Díaz, M. & Giráldez, A. (2008). *La música en la educación infantil*. Barcelona: Graó.
- Bará, J.; Domingo, J. & Valero, M. (2011). *Técnicas de aprendizaje cooperativo*. Taller de formación. Barcelona: Universitat Politècnica de Catalunya.
- Escamilla, A. (2009). *Las competencias en la programación de aula*. Barcelona: Graó.
- Escribano, A. & Del Valle, A. (2008). *El aprendizaje basado en problemas*. Madrid: Narcea.
- Evensen, D.H. & Hmelo, C.E. (Eds). (2000). *Problem-based learning. A research perspective on Learning Interactions*. Mahwah, NJ: Lawrence Erlbaum Associates.
- González, C. (1999). *Mi niño no me come*. Madrid: Ed. Temas de hoy.
- Hilsdale, N.J.; Erlbaum Pease, M.A. & Kuhn, D. (2010). Experimental analysis of the effective components of Problem-Based Learning. *Science Education*, 94(1) pp.57-86.
- MINEDU. (2012). *El valor educativo de los cuidados infantiles para la atención a los niños de 0 a 3 años. Guía de orientación*. Perú: Ministerio de Educación.
- Muñoz Díaz, M. J. (2010). Alimentación y salud en la educación infantil. *Innovación y experiencias educativas*, nº 36.
- Cavallini, I. & Tedeschi, M. (eds.). (2012). *Los lenguajes de la comida*. México: Reggio Children. Red Solare.
- Riaño, M.E. & Díaz, M. (coord.). (2010). *Fundamentos musicales y didácticos en educación infantil*. Cantabria: Universidad de Cantabria. Servicio de Publicaciones.
- Vila, B. & Cardo, C. (2005). *Material Sensorial (0-3 años)*. Barcelona: GRAÓ

## 8.- Eranskinak (banaka egiteko)

### I. HAUR HEZKUNTZAKO 2. MODULUAREN AUTOEBALUAZIO- GALDETEGIA

IZEN-ABIZENAK:

Moduluaren Diziplinarteko Lana eginez lortu nahi diren gaitasunak kontuan harturik, esan zer ikasi duzun bakoitzari dagokionez eta zertarako izango den balia garria zuretzako (maila profesionalean, pertsonalean...):

GAITASUNAK	AZALPENA
<b>G1:</b> Ikasleak osasunari loturiko alderdiak lantzerantz behartzen dituzten hezkuntza egoerak aztertzea, baita hainbat esparrutan dituzten ondorioak ere, bereziki familiekiko lanean.	
<b>G2:</b> Oinarrizko estrategiak erabiltzea (adibidez, gizartea ikuspegi kritiko batetik aztertzea edo esperientziak eta iritziak trukitzea), norberaren balioak argitzeko eta bizimodu bidezkoagoak eraikitzen lagunduko duten jarrera pertsonalak hartzeko bitarteko gisa.	
<b>G3:</b> Taldean lan egitea eta partaidetza, erantzukizuna, autoestimua, sormena, adiskidetasuna, askatasuna, lasaitasuna, dibertsioa, bizipoza eta uneko jardueretako kontzentrazioa bultzatzea.	
<b>G4:</b> Mintzaira artistikoak –gorputz eta ikus adierazpena eta musika– gizarte gaitasunen garapen praktikora zuzendutako estrategia didaktiko ludiko eta sormenezkoen diseinuan integratzea.	
<b>G5:</b> Askotariko informazio eta komunikazio bitartekoak (IKTak, liburutegiak, fonotekak, eta abar) modu kritikoan erabiltzea, ezagutza iturriak kontsultatzeko eta komunikatzea, ikastea, ikertzea eta elkarlanean aritzea ahalbidetzeko.	
<b>G6:</b> Egoki hitz egitea eta idaztea eta adierazpen teknikak erabiltzen jakitea.	



Halaber, **justifikatu** zure buruari jartzen diozun **kalifikazioa** (0tik 10era) hurrengo baieztapenei buruz:

AUTOEBALUAZIOA		0-10	JUSTIFIKAZIOA
1	Taldean partaidetza aktiboaren jarrera mantendu dut (Taldearen funtzionamenduan lagundu dut, bilerak prestatzen, entzuten, eztabaidak errazten, dimanitzatzen,...)		
2	Taldearen eztabaidetan ideia berriak eta aipagarriak eman ditut		
3	Taldeak burututako bilera guztietara joan naiz esleitutako zereginak eginda		
4	Esleitutako lana egiteko behar bezain beste denbora eman dut		
5	Egiaztatutako iturrietatik kontsultatu dut materiala (zehaztu)		
<b>AUTOEBALUAZIOAREN BATEZ BESTEKO NOTA (ikasleak bete beharrekoa)</b>			

## II. HAUR HEZKUNTZAKO 2. MODULUAREN KOEBALUAZIO-GALDETEGIA

KOEBALUAZIOA EGITEN DUEN IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK:

Hurrengo taulan, **idatzi** eta **justifikatu** zure taldearen ikaskide bakoitzari jartzen diozun kalifikazioa (0tik 10era) hurrengo baieztapenei buruz:

KOEBALUAZIOA		x		y		z		....		...	
1	Taldean partaidetza aktiboaren jarrera mantendu du (Taldearen funtzionamenduan lagundu dut, bilerak prestatzen, entzuten, eztabaidak errazten, dimanitzatzen,...)	0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa
2	Taldearen eztabaidetan ideia berriak eta aipagarriak eman ditu										
3	Taldeak burututako bilera guztietara joan da esleitutako zereginak eginda										
4	Esleitutako lana egiteko behar bezain beste denbora eman du										
5	Egiatutako iturrietatik kontsultatu du materiala (zehaztu)										
<b>IKASKIDE BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO NOTA (ikasleek bete beharrekoa)</b>											

**OHARRA:** ikasleek koebaluazioen batez besteko notak atera beharko dituzte taulan bertan agertzen den azken lerroan. Taula guztiak eranskinak bezala joango dira lanean.